

## Funtsezko baliabideak

Gure lokalak hainbat funtsezko baliabide izan beharko ditu bere funtzionamendurako. Baliabide horiek honako hauek dira:

**Baliabide fisikoak:** lokala, sukaldea, altzariak, umeak zaindu eta entretenitzeko beharreko jokuak eta jostailuak...

**Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:** ordenagailu bat (gure antolakuntza guztia kudeatzeko baita gure diru kontuak ere), inprimagailua (umeentzako, guretzako edo gurasoentzako fotokopiaren bat egin behar bada) eta gu lauon pedagogia eta haurren zaintza ezagutzak. Behar izanez gero, ez dugu baztertzeko beste laguntzarik. Izan ere, baliteke aurrerago gure enpresa hazten bada laguntza behar izatea hainbat jardueretan eta orduan, langileren bat kontratatu beharko genuke.

**Finantza baliabideak:** guk gure poltsikotik jarriko genuke hasieran enpresa martxan jartzeko kapitala eta nahikoa ez balitz maileguren bat eskatuko genuke. Mailegua, irabaziak atera ahala ordainduko genuke.

